

## Zenbaki beltzak

**Euzko Alderdi Jeltzaleak** azkeneko hamar hilabeteetan izan duen asmoa errealtate bihurtu zuen atzo Markel Olano Gipuzkoako ahalduen nagusiak. EAJko sei diputatuen babesarekin, diputatu nagusiak dekretu bidez onartu zuen sozietate zerga %32,6tik %28ra jaitea Batzar Nagusiek abenduaren 9an hartutako erabakiaren kontra. Gobernu taldeko beste alderdiak aurka bozkatu zuten.

Halako neurri batek, Ogasunari eta berez herrialdeko biztanleei zuzen-zuzenean eragiten dien erabaki batek, lege aldetik zere bide egin dezakeen ikusteko dago —oposizioak dagoeneko iragarri du neurria epaiegietara eramateko asmoa—, baina agerian uzten du harmonizazio fiskala eta Gipuzkoako enpresen lehiakortasuna lehenesten duela ezizen gaitetik. Ez dirudi enpresen zergak jaitea eta gastu soziala handitzea —edo gutxienez bere

horretan mantentzea— bateragarriak direnik. Diru gutxiago jasotzen bada, gutxiago dago banatzeko.

Beste kontu bat da elkarteen gaineko arauari buruzko eztabaidak urte osoan piztu duen zalaparta. Zerga Koordinaziorako Organoan EAJk eta PPK erreforma hastea hitzartu zutenetik, Araban eta Bizkaian ez bezala, oztopoak besterik ez du aurkitu Gipuzkoan. Eta hauteskundeetatik zazpi hilabetera ezadostasunak agerikoak dira Aldundiko gobernu taldean. Irailean EAJk eta EAk %30eko zerga hitzartu zuten arren, hilabete geroago jeltzaleek atzera egin eta orain neurria dekretu bidez atera izanak erakusten du erakutsi nahi den baino sakonagoa dela krisia.

**Bitartean** enpresetako beharginen heriotza kopuruak ez du behera egin aurtien. Hiru egunetik behin langile bat hiltzen da Euskal Herrian, eta aurtien dagoeneko 117 dira lanean hildakoak. LAB sindikatuaren arabera. Horiek bai zenbaki beltzak.

## HIZPI DEAK

Mikel Lizarralde  
mizarralde@berria.info



Hitz beste

Anjel Lertxundi

## Egutegia

XVIII mendean oso modan zeuden eduki erdi filosofiko erdi morala izaten dialogo labur-laburrak. Leopardi poetak halako asko idatzi zuen, artean *Egutegi saltzaile baten eta ibiltari baten arteko dialogoa*. Saltzaileak hogeiei urte daramatza egutegiak saltzen eta bezeroei aurrekoa baino urte zoriotsuagoa opatzen. Egutegiak saltzen aritu den hogeiei urte horietan berak ez du, ordea, besteak baino zoriotsuagoa izan den urte bakar bat ere gogoratzen. Bezero batekin izaten ari den solaski aurrera egin ahal, pessimismoak —errealismoaren isla benetako horrek— hartzen du saltzaileak: ez luke atzera jo nahi, baina ez du aurreak dantza hobirik erakutsiko dion itxaropenik. Azkenean, ez dio besterik eskatuko urte berriari: onetik poxin bat ugarixeago ekar diezaiola txarretik baino.

Bihar egutegi zaharra kendu eta berria jarzateko eguna. Esandakoa: alde onak ugarixeagoak izan ditzazula, eta urtats on!

## Montxo



## Hamar urte: Karlos Santamariaren oroiz

Joxe Azurmendi  
ldazlea

Karlos Santamaria euskararen militantea da, idatzi zuen Joan Mari Torrealdai, haren lankide eta adiskideak. «Euskararen prestigio huma bidez asko landu du euskal gizartearen, euskara modernotzeko lanetan ibilia da Euskaltzaindiaren inguruan, eta euskararen etorkizunaren kezka hizkuntza politikaren filosofia eta bideak markatzera eramandu». Euskal kulturarentzat Santamariak, praxian hala teoriatan, duen esanahiaren laburbildumatzoa.

Santamaria ez da hizkuntzaren arlora mugatu. Politikan ere ibili da, bai praxian eta bai teoriar hor ere. Orain asko aipatzen da, abertzaleen modernotze egin behar omen dela. Santamariak aspalditxo birpentsatu zuen abertzaletasun tradizionala personalismo frantses ezkeriarretik. Ulergaitza da, nola bere bidaide ideologikoe

berek ahaztuta duten nonbait haren gogoeta, edo ez duten ezagutzen ere apika. Bortxa, bakera, Gandhi, torturak, demokrazia egiazkoaren beharra («demokrazia organiko» gabe), federalismoaren ezinbestekoa, gaur-gaurko gai horiek denak, Santamariak sakonki jorratuak ditu bere idazkitxoetan.

Familia aldetik tradizio liberal ez euskaltzaletik zetorren, etorri. Aita, Burgostarra, soldadu karlista ohia, Frantziara exiliatua beste hainbat ofizial karlistarekin, eta kultura frantsesean murgildua eta liberala gero. Ama, Arano euskalduneko Anstatarra, handik Donostia-tara aldegin behar izandakoa familia liberala izateagatik. Karlos Santamaria haurrak etxean espainola eta frantsesa ikasi du. Donostia burgesean euskara neskameen eta baseritarren hizkuntza trakets erdematua da. Gipuzkoan «Don Karlos» bezala ezagutu dugun buruargi pribilegiatua, hamaka abertzale eta euskaltzaleren maisua, denborarekin bakarrik heldu da bera Euskal Herria eta euskara desku-

brizera. Euskara ikasten hogeitailau urterekin hasi da, Errepublikan. Euskalduna haziko du bere familia.

Gerra zibilak Karlos eta emazte ezkonberriak Zestoan harrapatu ditu. Tropa frankistek Gipuzkoa okupatu ahal, Karlos Santamaria, lehenengo bere bista motzagatik soldaduskatik libre geratua, errekrutatza behartua egon da, ihes egin ez duen beste gazte anitzekin batera. Armadan bulego lanetara koan izan da esleitua Donostian bertan. Aginte militarrek Igeoldoko Behatoki Meteorologikoa erreklusatu baitu, eta haren arduraduna —abertzalea— kargugabetu, plaza hori, bere lanbidea Institutuan halaber galduta duen Karlos Santamariak erdietsi du. Askoren exilioak edo kartzelaz, askoren irtenbide profesionalak moztuz edo beste erremediortik gabeko irtenbideetara behartuz, frankismoak sufrimendu asko ekarri du familietara, inoren errurik gabe.

Meteorologia ez da izan Santamariaren bokazioa eta zeregin na-

gusia. Diktaturaren sareak euskal gizarte osoa azpian lotu bada, matematikako doktore donostiarra zientzien ikasketak pizten ahalegindu da, Goi-Ikasketara sortuz ingeniariak prestatzeko (1940), formazio unibertsitaria sustatuz jeuitzen itzalpean (EUTG, 1956), Gipuzkoako Unibertsitatea Sustatzeko Batzordea bilduz (1964), Zuzenbideko eta Kimikako Fakultateen sorrera bultzatuz, bere karakteristikoa zuen kemen isil geldigabekoak erakunde bat bestearen ondoren antolatuz. Probintzian goi ikasketen infrastruktura sendo bat ezarri bila. Lan handion alboan lan txiki mila burutu du gizaritearen heziketari begira, hala nola asteroko artikulua egunkarian, hitzaldiak herrietan gazteak animatuz eta orientatuz, Imanol Murua Diputatu Nagusi ohiak eskeronez gogoratu ohi duen bezala.

Ofizialki katolikoa zen diktaturan, katolikotasun «disidente» bat, zintzoa, soziala, irekia pentsaeraz, ordezkatzea izan da beti Santamariaren helburu minenetakoa. Filo-

sofian adina teologian interesaturiko, eta bietan harrigarri ongi jantzirik matematikoa, Pax Christi internazionalako idazkaria izan da, eta *Conversaciones Católicas Internacionales de San Sebastián* (1947) garrantzitsuen antolatzailea: diktatura itxuan zegoen leho ireki bakarra, Arangurenen esanean.

Bijoiko bereziki euskaltzaleari gure omenaldia, hala ere Santamaria pionero ibili da euskararen gerraosteko bidegintza guztitan: ikastolen sorreran, andereñoen formazioan («Andereñoen Erresidentzia»), Santo Tomas Lizzearen fundazioan, euskara batuaren aldeko borrokan (eta Euskaltzaindiaren defentsan), euskara modernoaren hiztegi gintza proiektuetan, Jakin eta Elhuyar taldeen eta aldizkarien antolara. *Jakín* berriaren hasieran (1968) bera izan zen aitapontekoa, eta are: eragilea Rikardo Arregi eta Joan Mari Torrealdaiarekin. Lehen momentutik eta beti *Euskaldunon Egunkariaren* aldelezesutsu, Egunkaria Sortzen taldeko kide izan da. Gipuzkoan autoritate intelektual handienetakoa zen. Hala, «Don Karlos»-ek, bere izen eta ospearekin, euskara, eta frankismoaren ziren euskaltzaletoak, ohoratu ditu. Ohore, gaur, eta milesker, maisu eta lagunari.